



Nikolasena (-a) etxebizitza

Aldacerak: Nikolasena / Gorroñona
Ahozkoa: Nikólasena



43° 9' 40"

2° 33' 47"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Murgoitiogojascoa, [también conocida por Nikolasena]... situada en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, que comprende ciento dos estados, equivalentes a trescientos ochenta y ocho metros de cabida, y la que se compone de dos viviendas, con piso llano, de zaguan, dos cocinas y dos cuadras, de piso principal con tres cuartos, dos desbanes pequeños y pajar..."
DJE 3/47 or. (1872)

Bi bizitzako baserri hau Murgoitio auzoko goialdean kokatzen da, *Murgoitiobeña* eta *Arboleta* baserrien artean. Dugun lehendabiziko erreferentzia XVIII. mende amaierakoa da: 1796ko su-erroldan *Nikolasena* baserria. Ahozkoan ere izen bera mantendu da, hots, *Nikólasena*, eta batzuk *Gorroñona* ere esaten diote, bizitzetako baten jabearen abizena Gorroño baita. Idatzizko dokumentazioan aldiz, ñabardura batzuekin, beti forma bera mantendu da: *Nicolascua* (1857) eta *Nicolasenecoa* (1881).

XX. mendean handitu zuten baserrian bistan dago XVIII. mende akaberan eta XIX mende

hasieran Berriz inguruan gorpuztu zen eskema. Pisu bat gehiago daukala onartuta, antz handia dauka bere ordenamenduan *Etxanoeta* (**Ikus Etxanoeta**) edo *Gomendio* (**Ikus Gomendio**) baserriena, baita *Murgoitiobeñarena* (**Ikus Murgoitiobeñarena**), *Matzagabekoa* (**Ikus Matzagabekoa**) eta *Arroitajaregirena* (**Ikus Arroitajaregirena**) ere. Nabarmenena sarrerako arku zabala da, fatxadako harlanduzko elementu bakarra, bestea luzituta eta zurituta baitago. Bestelako bao edo leihoak ohikoak dira: erdiko gorputzean, pisuko, bina; eta alboetan, beste bi.

toponimia

Nikolas pertsona-izena eta "etxea" esan nahi duen -ena amaieraz osatutako toponimoa dugu. Amaiera horren osagaiak jabetza adierazten duen -en deklinabidea eta artikulua dira. Azken finean, "Nikolasen (etxe)a" esan nahi du. Bizkaian arruntak dira horrelako egitura duten izenak; baina ez dira oso zaharrak edo ez behintzat Nafarroan bezain zaharrak, eta, horregatik, ez dute deiturarik eman. Gehienak XVIII. mendetik aurrera sortu ziren, edo horrela osatutako izena hartu zuten izen zaharraren orde. Azken hori da kasu honetan gertatu dena, dokumentuetan behin Murgoitiogojascoa ("Murgoitio goikoa", alegia) ere ageri da eta.